

Enpresa zuzenbidea

EAZ Gradua: laugarren ikasturtea

Irakaslea: Amaia Zubiaurre

Azterketa (2020-2021)

Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea  
EHU



Gizapedia

[gizapedia.org](http://gizapedia.org)

ENPRESA ZUZENBIDEA  
2021eko urtarrila

**1. ariketa**

Azaldu zeintzuk izan daitezkeen sozietate batek urteko knotuak Merkataritza Erregistroan ez depositatzearen ondorioak.

---

**2. ariketa**

(a) Julen enpresaria eta Ane andereñoa irabazpidezko erregimenean ezkondata daude. Zein ondasunek erantzungo dute, beti eta gutxienez, Julenen jarduera enpresarialaren zorrengatik?

---

(b) Julen (banakako enpresaria) eta Ane andereñoa irabazpidezko erregimenean ezkonmduta daude. Anek auto bat erosi du bere soldatarekin. Auto horrek Julen enpresariaren zorrengatik erantzun al dezake? Arrazoitu erantzuna.

---

**3. ariketa**

- (a) Juridikoki, Erantzukizun Mugatuko Sozietate baten administratzailea enpresaria al da? Zergatik? Arrazoitu erantzuna.
- (b) Zeintzu baldintza bete behar ditu pertsona bakarrekoa bihurtzen den sozietate batek? Zer gertatzen da baldintza horietakoren bat betetzen ez bada?
- 

**4. ariketa**

Zeintzuk dira akordio sozialak aurkatzeko arrazoiak SA edo EMS batean? Horien azalpena egin.

---

**5. ariketa**

Nola erantzuten dute galerengatik SA edo SL bateko administratzaileek? Zergatik?

---

**6. ariketa**

Zer da erretorno edo itzulkin kooperatiboa sozietate kooperatibo batean?

---

**KASU PRAKTIKOA**

Kebab negozioak dituen "Kebabon, SA." enpresak salmenten jaitsiera nabarmena izan du eta badira 3 hilabete langileei eta Gizarte Segurantzari ordaintzen ez diola. Lokaletako bate jabeak, 3 hlabete kobratu gabe egon ondoren, kaleratzea eskatu du eta dendaren kutxa erregistratzailea eta bestelako tresneria bahitu edo enbargatu ditu.

Administrazio kontseiluak ez du konkurtsoa eskatzerik nahi, horrek enpresaren iruditxarra emango bailuke eta egoera larri hau gaindituko dutela uste du.

Galderak

- (a) Behartuta al dago administrazio kontseilua konkurtsoa eskatzera?
- (b) Lokalaren jabeak eska al dezake konkurtsoa?
- (c) Administrazio kontseiluak ez badu konkurtsoa eskatzen, zein kalifikazio merezi du konkurtsoak? Zein ondorio izango ditu horrek kontseilarentzat?
- (d) Konkurtsoa deklaratu balitz, jarraitu al daiteke kutxa erregistratzailearen eta tresneriaren bahiketarekin?
- (e) Zein epailek egingo konkurtsoaren jarraipena?